

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela
Maite Zubia Atxaga
Josu Miren Ezkurdia Santamaria
Maite Uribe Beristain
Aitor Zubizarreta Alegria
Aintzane Agiriano Errasti
Edorta Barandiaran García
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2018ko irailaren 27an, arratsaldeko seietan, Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ezohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Joseba Iñaki Kerejeta eta Nestor Arana.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas del día 27 de septiembre de 2018, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente José Ramón Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Joseba Iñaki Kerejeta y Nestor Arana.

1.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2018ko irailaren 19ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

Berriaz eman da 15., 16. eta 17. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkate erabakien berri.

2.- 18. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 18. espedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako betebeharrei.

Era berean, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Eztabaidaren ondoren bozketa egin da, eta Udalbatzarrak aho batez honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 18. espedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera.

Gastu partidak: transferitu gura diren kredituak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0100.470.150.00.01 2018	SURADESA	11.922,75	996,32	10.926,43

	GUZTIRA	11.922,75	996,32	10.926,43

Gastu partidak: gehitu nahi diren kredituak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0400.481.341.00.01 2018	DIRU LAGUNTZA:KIROLA	3.000,00	796,32	3.796,32
1 0500.481.433.00.01 2018	DIRU LAGUNTZA.TOKIKO GARAPENA	600,00	200,00	800,00
	GUZTIRA	3.600,00	996,32	4.596,32

* Aurrekontu partida berriak sortu ahal izango dira.

Bigarrena.- Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako tramite barik eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa.

3.- 19. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.

Kredituak aldatzeko 19. espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du UDAL honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharrezko eta tramiteei.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, bototara jarri da proposamena.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 19. espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0400.227.342.20.16 2018	KIROLDEGIKO EKINTZEN KUDAKETA	257.921,78	25.000,00	282.921,78
1 0300.227.231.10.19 2018	ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA	117.526,46	12.500,00	130.026,46
1 0200.161.153.40.03 2018	ERRETIRO AURRERATUEN KALTE ORDAINAK	0,00	49.000,00	49.000,00
GUZTIRA		375.448,24	86.500,00	461.948,24

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0200.870.000.00.01 2018	DIRUZAINZAKO GERAKINA:GASTU OROKORRETAR	86.500,00

FINANTZAKETA GUZTIRA	86.500,00
-----------------------------	------------------

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

4.- 2018ko DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN LEHEN ALDAKETA.

Udalbatzarrak, 2017ko abenduaren 18ean egindako bilkuran, 2016-2019 diru laguntzen plan estrategikoa eguneratzeko erabakia hartu zuen plan hori 2018ko ekitaldiko aurrekontuari egokitzeke.

Eguneraketa onartuta, komenigarria ikusi da planaren eranskinean jasotako aurreikuspenetako batzuk aldatzea lerro estrategikoetako diru laguntza programa batzuen eremu subjektiboa edota objektiboa zabaltzeko. Aldaketa horiek honako hauek dira:

A- ONDORENGO PROGRAMETAN AURREIKUSITAKO KOSTEA HANDITZEA:

- PROGRAMA: ESKOLA KIROLERAKO DIRU LAGUNTZA. Kostea 2.876,57 eurotan handitzea Gipuzkoako Foru Aldundiak LEKi emandako diru laguntzaren % 100a itzultzeko.
- PROGRAMA: TOKI GARAPENA.- 200 eurotan handitzea, aurreikusitako jardueren kostea % 100ean finantzatzeko.
- PROGRAMA: Programatutako kirol jarduerentzat eta irabazi asmorik gabeko Eskoriatzako kirol talde eta elkarteentzako diru laguntzak. 796,32 eurotan handitzea Goitibehera Lagunen Elkarteari aurreikusi gabeko koste bat finantzatzen laguntzeko.

Aurrez esandakoarengatik, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Indarrean dagoen 2016-2019 diru laguntzen plan estrategikoa honela aldatzea:

LEHENENGOA.- ONDORENGO PROGRAMETAN AURREIKUSITAKO KOSTEA HANDITZEA:

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskola Kirola

HARTZAILEA: LEK

HELBURUA: Urteetan Leintz Eskola Kirola, beste udal batzuekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, eskualdean eskola kirola sustatzeko egiten ari den lana bultzatzea.

LORTU GURA DENA: Eskola kirola sustatzea 3. LH-tik 2. DBH-raino

DIRU LAGUNTZA MOTA: izenduna

2018ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 16.177,16 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.341.10.01 partida

C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Programatutako kirol jarduerentzat eta irabazi asmorik gabeko Eskoriatzako kirol talde eta elkarteentzako diru laguntzak.

HARTZAILEA: Egoitza edota jarduera eremua Eskoriatzan duten herritar taldeak eta kirol elkarteak.

HELBURUA: Herriko irabazi asmorik gabeko kirol elkarteek eta taldeek urtean zehar egingo dituzten jarduerak diruz laguntzea. Azken helburua da kalitatezko kirol jarduerak eskaintzea herrian, eta herritarren parte hartzea sustatzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa. Lehiaketa.

2018ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 3.796,32 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.341.00.01 partida

C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: TOKI GARAPENA

HARTZAILEA: Eskoriatzako herritarrak eta merkatariak

HELBURUA: Merkataritza sustatzeko Udalak antolatuko dituen lehiaketetako irabazleei sariak ematea.

LORTU GURA DENA: Merkataritza animatzeko eta dinamizatzeko jardueren bidez PERCOren ekintza plana betetzea (PERCOREN 2-ARDATZEKO JARDUERA PLANA).

DIRU LAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa.

2018ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 800 euro.

FINANTZIAZIOA: 0500.481.433.00.01 partida

5.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA: ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LEHIAKETARAKO DEIALDIA EGITEA.

Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak egindako diktamena ikusita, Udalbatzarrak, aurrez eztabaidatuta, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Eskoriatzan ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA emateko zerbitzua prozedura ireki bidez eta hainbat esleipen irizpideren arabera kontratatzeko espedientea onartzea. Kontratuari kalkulaturako balioa Europako atalasearen berdina edo handiagoa da, 191.000 euro urtekoa, balio erantsiaren zergari dagozkion 7.640 euro gehitu beharko zaizkionak. Kontratuak urtebeteko iraupena izango du, beste 4 urtez luzatu ahal izango dena, baina, iraupena, guztira, ezingo da 5 urtetik gorakoa izan.

BIGARRENA.- 198.640 euroko gastua onartzea 2019ko aurrekontuaren kargura.

HIRUGARRENA.- Zerbitzu kontratu honen prozedura ireki bidezko kontratazioa arautuko duten baldintza agiriak onartzea.

LAUGARRENA.- Kontratu hau prozedura ireki bidez esleitzeko prozedura hastea, eta dagokion iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAOn) argitaratzeko agintzea, ondoren kontratatzailearen profilean argitaratzeko, nahi duenak proposamenak aurkeztu ditzan 35 eguneko epe barruan.

6.- KIROLO ARLOKO ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUA LUZATZEA.

Udalbatzarrak 2016ko urriaren 18an hartutako erabakiz, kirol arloko zerbitzuak emateko kontratua E-GOITEK S.L. enpresarik esleitzea erabaki zuen ondoren esango den esleipen prezioan eta administrazio baldintza partikularren agirian ezarritako gainerako baldintzen eta kontratistaren proposameneko zehaztapenen pean:

- Kirol jarduerak eta ikastaroak emateko zerbitzua: 24,97 € orduko gehi % 21eko BEZari dagozkion 5,24 euro.
- Kontratuaren xede diren gainerako zerbitzuak: 169.560 € urteko gehi % 21eko BEZari dagozkion 35.607,6 euro.

Kontratuaren iraupena 2 urtekoa zen, dagokion kontratua formalizatutako egunetik kontatzen hasita, eta urtero luzatu daiteke, gehienez ere beste 2 urtez.

Luzapena berariaz erabaki behar da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23.2. artikulua arabera.

Kontratua kudeatzeko ardura duen zerbitzuak txostena egin du, eta bertan esaten du onuragarri ikusten duela kontratua aipatutako eperako luzatzea.

Era berean, proposatutako luzapenarekin kontratista ados dagoela jasotzen da.

Aipatutako artikulua arabera, kontratuaren luzapena kontratazio organoak erabakiko du, kasu honetan, Udalbatzarrak.

Aurrez esandakoaren arabera, Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde Informatzaileak egindako proposamenarekin bat eginda, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Eskoriatzan kirol arloko hainbat zerbitzu emateko kontratua luzatzea URTEBETEZ, baldintza agiriko bosgarren baldintzan eta Sektore Publiko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

7.- TRAFIKOKO BURUZAGITZA NAGUSIA ERAKUNDE AUTONOMOAREN ETA ESPAINIAKO UDALERRIEN ETA PROBINTZIEN FEDERAZIOAREN ARTEKO HITZARMENA INFORMAZIOA TRUKATZEKO ETA ADMINISTRAZIO GAJETARAKO ELKARRI LAGUNTZA EMATEKO.

Herritarrek probintzietako eta herrietako trafikoko buruzagitzetan egin behar dituzten izapide administratiboak errazteko asmoz, eta horietako bat zirkulazio-baimenetan eta gida-baimenetan helbide aldaketa izanik, eta Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

- Informazioa trukatzeko eta administrazio gaietarako elkarri laguntza emateko Trafikoko Buruzagitza Nagusia erakunde autonomoaren eta Espainiako udalerrien eta probintzien federazioaren artean sinatutako hitzarmenera erabat atxikitzea.

- Ahalmena ematea Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jaunari atxikimendua formalizatzeko.

8.- GAZTAÑADUI 5 HELBIDEKO JABEKIDEEN ESKAERA.

Eraikinean igogailua jartzeko emandako baimenak sortutako EIOZean % 90eko hobaria aitortzeko eskaera egin dute Gaztañadui 5 helbideko jabekideek 2018ko ekainaren 6an.

Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zerga arautzen duen udal ordenantzan ondorengo hobaria jasotzen da:

5.3.3.5. Kuotan %90eko hobaria izango dute igogailua jartzeko obrek, baldin eta eraikinak bi solairu edo gehiago baditu, bere erabilera nagusia etxebizitzatarako bada, eta instalazioa bat baldin badator berariaz egindako udal ordenantzan edota planeamenduan exijitzen diren baldintzekin. Hobari hauetarako eskubiderik ez da izango igogailu zaharren orde berria jartzeko obrak direnean; ezta igogailua familiabakarreko edo familia biko etxeetarako denean ere (berdin da etxeak banakakoak edo atxikitakoak izan), eta oro har, ez dute

eskubiderik izango promotore eta kontratistek egindako eraikuntza berrietan jarritako igogailuek (nahiz eta eraikuntza berria zaharraren ordeztu eraiki).

Aurreko paragrafoan esaten den ordenantza onartu bitartean, Udalbatzarra izango da eskuduna hobariak onartzeko, eta horretarako baldintza hauek bete behar dira:

Igogailua eraikinaren barruan jarri beharko da.

Obrek indarrean dagoen legeria bete beharko dute.

Aukera guztien artean, etxebizitzetara irisgarritasunik onena eskaintzen duen instalazioa jarri beharko da.

Instalazioa inguruko antzeko eraikinetakoen antzekoa izan beharko da.

Lurzoru publikoan eta lerrokaduretan ahalik eta txikiak izango dira kalteak.

Udal zerbitzu teknikoek egindako txostenaren arabera, jarritako igogailuak ordenantzan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditu.

Aurrez esandako guztia kontuan izanik, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Gaztañudio 5 helbideko jabekideei % 90eko hobaria ematea eraikinean igogailua jartzeko emandako baimenak sortutako EIOZean.

9.- HIDALGA 10 HELBIDEKO JABEKIDEEN ESKAERA.

Eraikinean igogailua jartzeko emandako baimenak sortutako EIOZean % 90eko hobaria aitortzeko eskaera egin dute Hidalgo 10 helbideko jabekideek 2018ko uztailaren 6an.

Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zerga arautzen duen udal ordenantzan ondorengo hobaria jasotzen da:

5.3.3.5. Kuotan %90eko hobaria izango dute igogailua jartzeko obrek, baldin eta eraikinak bi solairu edo gehiago baditu, bere erabilera nagusia etxebizitzatarako bada, eta instalazioa bat baldin badator berriaz egindako udal ordenantzan edota planeamenduan exijitzen diren baldintzekin. Hobari hauetarako eskubiderik ez da izango igogailu zaharren ordezt berria jartzeko obrak direnean; ezta igogailua familiabakarreko edo familia biko etxeetarako denean ere (berdin da etxeak banakakoak edo atxikitakoak izan), eta oro har, ez dute eskubiderik izango promotore eta kontratistek egindako eraikuntza berrietan jarritako igogailuek (nahiz eta eraikuntza berria zaharraren ordezt eraiki).

Aurreko paragrafoan esaten den ordenantza onartu bitartean, Udalbatzarra izango da eskuduna hobariak onartzeko, eta horretarako baldintza hauek bete behar dira:

Igogailua eraikinaren barruan jarri beharko da.

Obrek indarrean dagoen legeria bete beharko dute.

Aukera guztien artetik, etxebizitzetara irisgarritasunik onena eskaintzen duen instalazioa jarri beharko da.

Instalazioa inguruko antzeko eraikinetakoen antzekoa izan beharko da.

Lurzoru publikoan eta lerrokaduretan ahalik eta txikienak izango dira kalteak.

Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzaileak egindako diktamena ikusita, eta horrekin ados egonda, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Hialga 10 helbideko jabekekideei % 90eko hobaria ematea eraikinean igogailua jartzeko emandako baimenak sortutako EIOZean.

10.-EUSKARALDIA: ERAKUNDE ADIERAZPENA

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako erakunde adierazpen hau onartzea ERABAKI DU:

EUSKARALDIA UDAL BARRUAN SUSTATZEKO ERAKUNDE-ADIERAZPENA

Azken neurketek baieztatu dutenez, euskararen ulermena eta ezagutza zabaltzen ari dira Euskal Herriko inguru ezberdinetan. Euskaraz hitz egiteko gai den jende gehiago dago, eta euskara ulertzen dutenak ere gero eta gehiago dira. Bi datu horiek aditzera ematen digutenez, euskarazko harremanak areagotzeko baldintza onak daude.

Horrela bada, euskararen erabilpen maila handiagoa sustatu eta praktika linguistiko berriak bultzatzen dituzten testuinguruak sortzeko beharra dagoela ikusten da.

Eta horixe da Euskaraldia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Topaguneak beste hainbat eta hainbat eragilerekin elkarlanean, erabilera eta praktika linguistiko berriak sortzeko abian jarri dugun ekimena. Ezagutzatik erabilerarako jauzia emateko garaia da, euskararen alde egotetik alde egiteko garaia.

Euskaraldia Euskal Herri osoan egingo den arren, tokian tokiko euskaltzale eta erakundeak izango dira herri bakoitzeko dinamiken sustatzaileak. Eskoriatzan ere, osatu da ekimen hori garatzeko batzordea.

Ekimen horretan 11 egunetan hizkuntza-praktika berri bat gauzatzera gonbidatuko ditugu herritarrak. Ariketa horren subjektuak 16 urtetik gorako helduak izango gara eta 11 egunez helduen hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa kolektibo bat egitea da proposamena, ulermena balioan jarrita. Bi subjektu mota bereizi dira: *ahobiziak* eta *belarriprestak*.

Ahobiziak izango dira 11 egun horietan euskarari eutsiko diotenak solaskideak euskaraz ulertzen duen guztietan, eta, *belarriprestak*, berriz, solaskideak gonbidatuko dituzte berarekin euskaraz aritzera, nahiz eta *Belarriprestak* euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.

Ekimenaren helburua da, besteak beste, ariketa praktikoko horren bidez ikusaraztea eta bizi-araztea hizkuntza-ohiturak alda ditzakegula, eta, ahal dela, 11 egun horiek pasa ostean, hizkuntza-praktika berri horiei eustea.

Hori guztia norberaren erabakiak errespetatuz, adeitasunez eta guztiak eroso sentitzeko moduan.

Euskara Gipuzkoan eta Eskoriatzan

Eskoriatzan eta Gipuzkoan erabileran eragiteko baldintza soziolinguistiko egokiak ditugu. Eta horrek ardura eta erantzukizun berezia ematen digu Euskaraldian.

Eskoriatzan bizi den 2 urte edo gehiagoko biztanleriaren % **62,58 euskalduna da eta biztanleen % 76,43k euskara ulertzen du**. Gipuzkoan, biztanleriaren % 57,4 da euskalduna, eta biztanleen %73,3k ulertzen du euskara.

Udalari dagokionez, **Eskoriatzako ordezkari politikoen %100ak ulertzen du** euskara, eta udal **langile publikoen %88ak**.

Gipuzkoako ordezkari politikoen % 90,4 gai da euskara ulertzeko eta % 86,8 euskaraz hitz egiteko eta, eta langile publikoen % 86,8k hitz egiten du euskaraz.

Baina erabilera-datuak diote Eskoriatzan kale erabilera %37,5ekoa dela, eta Gipuzkoan 16 urtetik gorakoen %39,5ek hitz egiten duela euskaraz. Badugu non hobetu, eta horretan lagunduko digu Euskaraldiak.

Aipatutako datuak eta Gipuzkoako eta Eskoriatzako egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta, EUSKARALDIA aukera egokia da erakunde publikook, eta, beraz, arduradun politikook, dagokigun erantzukizuna geure gain hartzeko eta eredugarritasunez jokatzeko, erabileran urrats berriak egite aldera.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

ERAKUNDE ADIERAZPENA

Eskoriatzako Udalak honakoa adierazi nahi du:

- Eskoriatzako Udalbatzak **bat egiten du Euskaraldiarekin** eta ekimenaren sustatzaile izango da. Horrenbestez, **erantzukizunez** eta **eredugarritasunez** jokatzeko konpromisoa hartzen du.
- Ordezkari politikoon **egiteko nagusia** izango da Euskaraldiaren markoan eta **bereziki udal barrura begira ekimena zabaltzea**. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta *ahobizi* eta *belarriprest* gehien aktibatzeko urratsak emango ditugu, arduradun politikoak izan nahiz langileak izan.
- **Ahobiziok** euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz aritzeko konpromisoa hartzen dugu.
- **Belarriprestok**, gainerakoak gonbidatuko ditugu gurekin euskaraz egin dezaten, nahiz eta guk euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.
- Eskoriatzako Udalak **neurriak hartuko** ditu **hizkuntza-praktika** horiek posible izan daitezen eta praktika **horiei etorkizunean eutsi ahal izateko**.
- Eskoriatzako Udalak, **udal barruan ez ezik udalerrian ere**, ekimenaren sustatzaile gisa, herritarrak gonbidatuko ditu Euskaraldiko ekimenean parte har dezaten eta izena emateko bideak erraztuko ditu.

- Eskoriatzako Udalak, bat egiten du **ekimena Gipuzkoan elkarrekin, elkarlanean eta batera garatzearekin**, lurralde mailako politika bateratu bati begira, ahalik eta udal gehienetan, mankomunitateetan, Gipuzkoako Foru Aldundian eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan.

11.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaraturata egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espediente onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuegatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboetara eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

18/10/01 etik 18/06/30 BITARTEAN AURREKONTUEI APLIKATUTAKO UDAL ZERGEN BAJAK

IFZ	KONTZEPTUA	URTEA	LIKIDAZIOA	KUOTA	ERREKARGOA	GUZTIRA	ZERGATIA
A20175238	JARDUERA ENPR.	2002	32 A005166 200I	136,25	27,25	163,50	PREZKRIZIOA.GEA
A20175238	JARDUERA ENPR.	2002	32 A005165 6008	1.564,98	312,99	1.877,97	PREZKRIZIOA.GEA
A20175238	JARDUERA ENPR.	2003	33 A005165 610Z	404,69	80,93	485,62	PREZKRIZIOA.GEA
A20175238	JARDUERA ENPR.	2003	54 8727263 000I	35,07	7,01	42,08	PREZKRIZIOA.GEA
A20175238	JARDUERA ENPR.	2004	34 A005166 2108	204,35	40,87	245,22	PREZKRIZIOA.GEA
72.567.570V	LANDALURRAK	2006	3R 0345741 060VV	54,66	10,93	65,59	PREZKRIZIOA.GEA
72.567.570V	LANDALURRAK	2007	3R 0345741 0700	56,67	11,33	68,00	PREZKRIZIOA.GEA
72.567.570V	LANDALURRAK	2009	3R 0345741 0908	124,38	24,87	149,25	PREZKRIZIOA.GEA
72.567.570V	LANDALURRAK	2010	3R 0345741 1004	124,38	24,87	149,25	PREZKRIZIOA.GEA
B01390681	HIRILURRA	2010	3U 0034645 100D	113,61	22,72	136,33	PREZKRIZIOA.GEA
B01390681	HIRILURRA	2010	3U 0034837 100Q	55,02	11,00	66,02	PREZKRIZIOA.GEA
71.342.473S	HIRILURRA	2010	3U 0036397 100B	121,24	24,24	145,48	PREZKRIZIOA.GEA
31.988.543M	HIRILURRA	2010	3U 5005416 1006	25,38	5,07	30,45	PREZKRIZIOA.GEA
A20372470	HIRILURRA	2010	3U 5112097 100Z	22,98	4,59	27,57	PREZKRIZIOA.GEA
A20372470	HIRILURRA	2010	3U 5095274 1003	21,58	4,31	25,89	PREZKRIZIOA.GEA
B01390681	HIRILURRA	2011	3U 0034837 110I	57,17	11,43	68,60	PREZKRIZIOA.GEA
71.342.473S	HIRILURRA	2011	3U 0036397 1103	125,05	25,01	150,06	PREZKRIZIOA.GEA
31.988.543M	HIRILURRA	2011	3U 5005416 110Y	26,38	5,27	31,65	PREZKRIZIOA.GEA
A20372470	HIRILURRA	2011	3U 5095274 110V	22,42	4,48	26,90	PREZKRIZIOA.GEA
A20372470	HIRILURRA	2011	3U 5112097 110R	23,88	4,77	28,65	PREZKRIZIOA.GEA
B20680526	JARDUERA ENPR.	2013	33 A020875 4204	532,90	106,58	639,48	PREZKRIZIOA.GEA
B20680526	JARDUERA ENPR.	2013	33 A020875 5200	399,66	79,93	479,59	PREZKRIZIOA.GEA
B43687375	JARDUERA ENPR.	2013	33 A030132 220A	399,66	79,93	479,59	PREZKRIZIOA.GEA
B48300271	JARDUERA ENPR.	2013	33 A022425 520H	186,52	37,30	223,82	PREZKRIZIOA.GEA
J01117555	JARDUERA ENPR.	2013	33 A009307 420B	466,29	93,25	559,54	PREZKRIZIOA.GEA
B20473385	JARDUERA ENPR.	2013	33 A026807 420N	434,02	86,80	520,82	PREZKRIZIOA.GEA
A01048040	JARDUERA ENPR.	2013	33 A007787 220H	399,66	79,93	479,59	PREZKRIZIOA.GEA
B09397134	JARDUERA ENPR.	2013	33A025253 820N	373,02	74,60	447,62	PREZKRIZIOA.GEA
A95191615	JARDUERA ENPR.	2013	33 A036467 920U	399,66	79,93	479,59	PREZKRIZIOA.GEA
GUZTIRA				6.911,53	1.382,19	8.293,72	

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea kontuhartzailletza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoei beste arrazoiren batzuegatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaraturako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

18:15ean, eta gai zerrendako hurrengo gaia bozkatu baino lehen, Rafa Bernal etorri da bilkurara.

12.- ARETXABALETAKO UDALAREKIN HITZARMENA SINATZEA UDAL BIETAKO GAZTERIARI BURUZKO AZTERKETA BAT KONTRATATZEKO.

Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Aretxabaletako Udalarekin proposatutako lankidetzaren hitzarmena sinatzea udal bietako gazteriari buruzko azterketa bat kontratatu eta finantzatzeko. Hitzarmenaren klausulak honako hauek dira:

KLAUSULAK

LEHENA: Aretxabaletako Udala arduratuko da zerbitzuaren kontratazioa eta esleipena egiteaz. Kostua, guztira, 17.709,56€ko izango da.

BIGARRENA: 17.709,56€ko gastuari aurre egiteko 11.333,56€ Aretxabaletako Udalaren kontura izango dira eta 6.376€ Eskoriatzako Udalaren kontura.

HIRUGARRENA: Gipuzkoako Foru Aldundiak 12.396,69 €ko diru laguntza onartu du, hau da, gastu osoaren %70a. Horrenbestez, diru laguntza horren 7.933,49 € Aretxabaletako Udalari dagokio. Eskoriatzako Udalari berriz, 4.463,2€.

LAUGARRENA: Kontuan hartuta nerabeen ikerketarako Aretxabaletako Udalari 7.933,49€ko diru laguntza dagokiola, bere kontura izango den 11.333,56€ko kostua osatzeko Aretxabaletako Udalak 3.400,07€ gehiago jarriko ditu, hau da, berari dagokion kopuruaren %30a.

BOSGARRENA: Kontuan hartuta nerabeen ikerketarako Eskoriatzako Udalari 4.463,2€ko diru laguntza dagokiola, bere kontura izango den 6.376 €ko kostua osatzeko Eskoriatzako Udalak 1912,8€ gehiago jarriko ditu, hau da, berari dagokion kopuruaren %30a.

SEIGARRENA: Kontratua gauzatu ondoren esleitua izan den enpresak Aretxabaletako Udalari fakturatuko dio ikerketaren lana.

ZAZPIGARRENA: Aretxabaletako Udalak fakturari oniritzia eman ondoren, ale bat Eskoriatzako Udalari emango dio, honek Aretxabaletako Udalari 1912,8€ko ekarpena egin diezaion.

ZORTZIGARRENA: Aretxabaletako Udalak eskatutako diru laguntza jasotzeko Gipuzkoako Foru Aldundian zerbitzuaren zuriketa aurkeztuko du eta honek emandako diru laguntzarekin, 12.396,69€kin geratuko da.

13.- UDAL LANGILEEN ORDAINSARIEN IGOERA.

Estatuko 2018ko aurrekontu orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 18.BI artikuluan aurreikusitakoaren eta uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 18.BI artikulua aurreikusten duen sektore publikoko langileen ordainsarien igoera onartzen duen 2018ko uztailaren 13ko Ministro Kontseiluaren erabakiaren babesean, eta Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, bertaratuta udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

1. 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin onartzea Udal honen zerbitzura dauden langileen ordainsarien % 1,5eko igoera 2017ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko.
2. 2018ko uztailaren 1etik aurrerako eraginarekin onartzea ordainsarien beste % 0,25eko igoera bat.
3. Igoera horiek urriko nominan ordaintzea.

14.- IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILETZAK 2018KO BIGARREN HIRUHILEKOAN JARRITAKO ERAGOZPENAK.

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzaitzak legezketasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2018ko apirilaren 1etik 2018ko maiatzaren 31ra arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

1.- “Justifikatzeko” igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)

(Kultura zerbitzuari emandako kutxa aurrerakina, 2018ko 2.a).

2.- “Justifikatzeko” igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)

(Kultura zerbitzuari emandako kutxa aurrerakina, 2018ko 3.a).

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 9 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

15.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2018ko bigarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 9 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

6.- ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEA.

Nestor Arana Arexolaleiba jaunak, Udal honetako EUSKAL HERRIA BILDU (EHBILDU) taldeko zinegotziak zinegotzi karguari uko egiteko aurkeztutako idazkia irakurri da.

Azken udal hauteskundeetan EUSKAL HERRIA BILDUren (EHBILDU) zerrendan hurrengo hautagaiak izan ziren Maria Asuncion Badiola Etxaniz andreak eta Jose Joaquin Enecotegui Ruiz de Azua jaunak kargua hartzeari uko egiteko aurkeztutako idazkien berri ere eman da.

Udalbatzarrak uko egite horien berri jaso du, kargua bete gabe geratzen dela adierazi du, eta Hauteskunde Arautegi Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan aurreikusitako ondorioetarako, uko egite hori Hauteskunde Administrazioari jakinaraztea erabaki du.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 18:30ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA

Se da cuenta de las Resoluciones de Alcaldía dictadas hasta fecha 19 de setiembre de 2018.

De forma expresa da cuenta de las resoluciones por las que se aprueban los expedientes de modificación de créditos nº 15,16 y 17-

2.- EXPEDIENTE DE MODIFICACION DE CREDITOS Nº 18

Dada cuenta del Expediente de Modificación de Créditos Nº 18 , mediante transferencia de créditos entre partidas presupuestarias de Gastos que afectan al Presupuesto de este Ayuntamiento.

Se da lectura al Informe emitido por la Secretaria-Interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos establecidos por los arts. 28 a) y 29 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa, por el que se aprueba el Reglamento Presupuestario de las Entidades Locales.

Igualmente se da lectura al informe favorable y propuesta de aprobación formulada por la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas.

Tras la correspondiente deliberación y sometido a votación, por unanimidad, el Pleno ACUERDA:

Primero.- Aprobar el expediente de Modificación de Créditos, nº 18 , mediante transferencia entre partidas presupuestarias de Gastos que se relacionan en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al Presupuesto de este Ayuntamiento y conforme al siguiente resumen por Capítulos.

Partidas de gasto: créditos que se quieren transferir (bajas)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
----------------	--------------	---------------------------	-------------------	---------------------------

1 0100.470.150.00.01 2018	SURADESA	11.922,75	996,32	10.926,43
GUZTIRA		11.922,75	996,32	10.926,43

Partidas de gasto: créditos que se quieren incorporar (altas)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0400.481.341.00.01 2018	DIRU LAGUNTZA:KIROLA	3.000,00	796,32	3.796,32
1 0500.481.433.00.01 2018	DIRU LAGUNTZA.TOKIKO GARAPENA	600,00	200,00	800,00
GUZTIRA		3.600,00	996,32	4.596,32

* Se podrán crear nuevas partidas presupuestarias

Segundo.- Siendo este acto firme y ejecutivo sin necesidad de ulteriores trámites procede que por los Servicios de la Intervención de Fondos se refleje en la contabilidad la modificación de créditos aprobada con efectos inmediatos.

